

# HOBETO IKASTEKO GIDA



## 1. IKASTEKO TOKIA



- **Beti berdina.** Leku atsegin eta eroso bat.



- Saihestu argazkiak edo objektu pertsonalak agerian dituzten lekuak, **arreta galtzea saihesteko. Zaratak ere saihestu:** telebista, beste batzuen elkarrizketak...



- **Telefono mugikorra** ere distrakzio bat da, onena **beste leku batean** uztea da.

## 2. ORDENA




- Azterketa-materialak **ordenatuta mantentzea.**

Adibidez, ikas-gaitegi osoa koadernatu dezakezu.

### 3. DENBORA

- Zugana egokitzen diren ohiturak hartu beharko dituzu. **Egin egutegi bat**, epe laburrean ikasi nahi dituzun gaiekin.



- Ezagutu zenbat denbora duzun ikasteko eta **osatu zure ikasketa-plana**.
- **Konstantea** izan.


### 4. ATSEDENA

- Ona da **atsedenaldi laburrak** egitea, burua lasaitu eta gero berriro ikasteko



- Adibidez: Adibidez, ordubetez ikasten baduzu, egokiena 10 minutuko atsedenaldia egitea izango litzateke berriz ere ikasten hasi aurretik.
- **GOGORATU:** batzuetan ez dago orduak eta orduak ikasten egon beharrik, garrantzitsuena da baliozkotasunez ikastea da.

## 5. ARRETA



- Zure kontzentrazioak behera egiten duela sentitzen duzunean, helburu txiki bat finkatu: beste orrialde bat, beste bi ariketa...

Helburu hori lortzean kontzentrazioa berreskuratu baduzu, aprobe txatu eta jarraitu, bestela, utzi.

- **Aldatu ikasteko teknika**, aktiboagoa izan dadin saiatuz.

Adibidez: irakurtzetik, azpimarratzera pasa.

## 6. IKASTEKO METODOA

### HASI AURRETIK

#### **1. PLANGINTZA:**

Ikasketa, edozein lan bezala, planifikatu egin behar da.

## IKASTEKO GARAIAN

### 2. GAIA IRAKURRI

**a. Gaiko orrialdeak aztertu.** Jarri arreta izenburuetan edo argazkietan.

**b. Gaiaren atal bakoitza patxadaz irakurri.** Irakurri arreta jarritz, baina ulertzen ez duzunagatik urduri jarri gabe.

### 3. ZALANTZAK JASO.

Behar baduzu, irakurri berriro gaia. Bigarren irakurketa honek kontzeptuak hobeto ulertzen lagunduko dizu.

★ Ondoren, oharrak egin ertzetan.

Adibidez:

- Harridura ikurrak erabili « ! » ,
- Galderak « ? »


★ Idatzi zalantzak orri batean eta zure erreferentziako pertsonarekin (lagun bat, senide bat, prestatzaile bat) argitu.

## 4. AZPIMARRATU

- **INOIZ** ez testu osoa irakurri gabe..
- Ezin da INOIZ testuaren **% 50 baino gehiago** azpimarratuta egon, baizik eta ez duzu informazioa hautatzen.
- **Kode pertsonal bat erabili.**

Adibide bat izan daiteke:



 - ideia orokorrak

 - bigarren mailako ideiak

## 5. ESKEMA

**Saiatu** eskema bat egiten:

- Idatzi gaiaren **funtsezko kontzeptuak** eta saiatu ideiak **erlazionatzen** edukia zure buruan ordenatzeko.


*\* Oposaketa honetan, dagoeneko eginda dauden eskemak eta egin ditzakezun jarduerak batzuk eskaintzen dizkizugu. Horretarako, kontsultatu Donostiako Udalaren webgunea.*

## 6. JARDUERAK BURUTU

Gaiari buruzko jarduera desberdinak egiteak ezagutzak indartzen lagunduko dizu.

## 7. IKASI APUNTEAK

Horretarako, adibidez:



- Kontzeptuak ahoz errepikatu
- Imajinatu beste norbaiti irakasten zaudela.
- Behin baino gehiagotan idatzi dena orri batean, ideiekin geratu arte.
- Egin zure laburpen edo eskema

## IKASI ONDOREN

## 8. ERREPASATU.



Berrirakurri ikasi duzuna **ezagutzak sendotzeko.**

*\* Gaiko jarduerak errepasatu ditzakezu edo ematen dizkizugun testak egin, oposaketa hau ondo entrenatu eta prestatu ahal izateko.*